

DOCENTIAZ PROGRAMA
UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren
ebaluazio programa

Fase esperimentaleko 4. deialdia

**Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeari
DOCENTIAZ programari buruzko inkestan
oinarritutako txostena**

2014ko ekaina

AURKIBIDEA

	Or.:
1. Sarrera	4
2. Galdera-sortaren diseinua eta garapena	5
3. Emaitzen azterketa	5
4. Informazioaren azterketa	22

ERANSKINAK

1. eranskina: Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeari zuzendutako galdera-sorta erdua	23
2. eranskina: Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak prestatutako Irakaslearen Amaierako Txostena	30

1. SARRERA

DOCENTIAZ UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programa hezitzailea da.

Fase esperimental honetan, DOCENTIAZ programa borondatezkoa da, eta irakaslana ebaluatzeko hiru informazio iturri ditu: irakaslea (autotxostena betetzen duena), ikasleak (iritzia ematen dutenak, lauhileko bakoitzaren amaieran jasotako irakaskuntzari buruzko inkesta bat beteta) eta, azkenik, ikastegia (Kalitate Batzordearen bitartez irakasleen lanaren alderdi formalei buruzko txosten bat egiten duena). Amaitzeko, hiru iturri horiek emandako informazioa aztertuta eta egiaztatuta, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) irakasleei zuzendutako amaierako txostena egiten du.

DOCENTIAZ programaren fase esperimentaleko laugarren deialdia 2013ko irailean jarri zen abian, ohiko bideetatik ezagutarazi zen, eta 2014ko maiatzean amaitu da.

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak (IEUB) ebaluazio bat egin behar du, goian aipatutako hiru informazio iturrietan oinarrituta. Batzorde hau ondorengoek osatzen dute: irakaskuntzan ospea duten eta ebaluazio prozesuak ezagutzen dituzten UPV/EHUko irakasleek, gure unibertsitatean ikasi duten eta espediente aipagarria duten hirugarren zikloko ikasleek, eta UNIBASQek proposatutako UPV/EHUtik kanpoko bi kidek.

Jarraian, Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeko kideei egindako galdera-sortatik (ikus 1. eranskina) ateratako emaitzak ikus daitezke. 2014ko maiatzean, galdera-sorta telematikoki bidali zitzairen eta modu anonimoan erantzun zioten.

IEUBko 27 kideei egin genien galdera-sorta betetzeko gonbita; horietatik 24k bete zuten. Kopuru nahiko altua da, edozein inkesta telematikotan galtzen diren erantzunen kopurua kontuan hartzen badugu. Guztira, % 88k erantzun zioten galdera-sortari.

2. GALDERA-SORTAREN DISEINUA ETA GARAPENA

Galdera-sortak likert erako neurketa eskala bat eta atal irekiak ditu. **DOCENTIAZ** programaren garapenari buruzko 30 galderak osatzen dute.


Galdera bakoitzean arrazoiketa eta hobetzeko proposamena eskatzen denez, galdera-sorta luzea da.

3. EMAITZEN AZTERKETA

Galdera-sortako galdera bakoitzeko, eskalako balio bakoitzeko erantzunen kopurua adierazten duen grafiko bat ikus daiteke. Horrez gain, batezbestekoa, konfiantza tartea, laginaren tamaina eta, amaitzeko, desbiderapen tipikoa eta errore estandarra daude irudikatuta. "Ondorio nagusiak" atalean, aukeratutako erantzunen portzentajeak ikus daitezke.

Horrez gain, galdera irekietan, bildutako erantzun multzoaren laburpen bat ere agertzen da. Adierazpen bakoitzaren ondoan horren agerpen maiztasuna dago adierazita, parentesi artean. Behin bakarrik agertzen diren balorazioak ez ditugu jaso txosten honetan.

1. itema.- DOCENTIAZ programan erabilitako adierazleak egokiak dira irakaskuntza jardura ebaluatzeke:



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batez b.	3,952	% 85,71k hau aukeratu zuten: Nahiko ados Erdizka ados 2 erantzun aukeratu gabe gelditu ziren.
Konfiantza tartea (% 95)	[3,700 - 4,205]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	0,590	
Errore estandarra	0,129	

2. itema.- Arrazoitu zure erantzuna:

- ✓ Adierazleak egokiak dira, irakaskuntza osotasunean hartzen dutelako (plangintza, garapena eta emaitzak) (5)
- ✓ Garrantzi gehiegi ematen zaio unibertsitateko irakaskuntza IKD ereduarekin bat etortzearekin; zehazki, hirugarren dimentsioa IKD prestakuntzara bideratutako ikastaroetan oinarritzen da (3)




- ✓ 1. dimentsioak (Plangintza eta garapena) pisu handiegia du (40/100), eta, gainera, nahita gauzatutako eta frogatzeko zailak diren elementuak baloratzen dira bertan (2)

3. itema.- Adierazi zure ustez zer adierazle ez diren ezinbestekoak DOCENTIAZ programan:

- ✓ 0. dimentsioa: irakaskuntza lanaren zailtasuna aitortu beharko litzateke JAPEan, baina, ez da egokia DOCENTIAZ programaren dimentsio guztiak D0ren adierazlean aplikatzea (3)
- ✓ Hirugarren dimentsioaren irakaskuntza kalitatearen prozesuekin lotutako adierazleak agian ken daitezke (3)
- ✓ Garrantzi handiegia ematen zaio ikasleen gidari (paperari) eta ez du eragin zuzenik irakasgaietako irakaskuntza jardueran (2)
- ✓ Kalitate batzordeetatik datorren informazioak ez du garrantzirik; espedienteekin lotutako alderdi guztiz formaletara mugatu beharko litzateke erabat (2)

4. itema.- Ikasleen gidak ebaluazio protokolo oinarriko informazioa izan behar du:




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batez b.	4,476	% 90,48k hau aukeratu zuten: Guztiz ados Nahiko ados 2 erantzun aukeratu gabe gelditu ziren.
Konfiantza tartea (% 95)	[4,186 - 4,767]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	0,680	
Errore estandarra	0,148	

5. itema.- Adierazi, mesedez, agertu behar luketela uste duzun beste gutxienerako alderdi batzuk:

- ✓ UPV/EHUk ikasle gida eredu bat izan beharko luke, irakasleek bete beharreko gutxienerako baldintza batzuekin (3)

6. itema.- DOCENTIAZ programako dimentsio bakoitzaren pisuak ondo banatuta daude:




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batez b.	3,714	% 85,71k hau aukeratu zuten: Nahiko ados Erdizka ados Inork ez zuten "Batere ados ez" aukeratu.
Konfiantza tartea (%)	[3,408 - 4,021]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	0,717	
Errore estandarra	0,156	

7. itema.- Erantzunak justifikatzeko inkestatuek emandako arrazoiak:

- ✓ Pisu handiegia eman zaio hirugarren dimentsioari (irakaskuntza garapen profesionala) (3)
- ✓ 0. dimentsioa ez litzateke puntu guztietan aplikatu behar (2)
- ✓ 2. dimentsioa. Emaitzek pisu handiagoa izan beharko lukete (2)

✓ 8. itema.- Irakaskuntza jarduerari buruz informatzeko ezarritako iritzi iturri hauek egokiak dira:




Azterketa teknikoa - Biztanleria: 21

Irakasleak		Ondorio nagusiak
Batezb.	4,333	% 85,71k hau aukeratu zuten: Gutziz ados Nahiko ados Inork ez zuen "Batere ados ez" aukeratu.
Konfiantza tartea (% 95)	[3,967 - 4,700]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	0,856	
Errore estandarra	0,187	
Ikastegiko Kalitate Batzordea		Ondorio nagusiak
Batezb.	3,143	% 57,14k hau aukeratu zuten: Erdizka ados Nahiko ados Gutxien aukeratutako erantzuna (% 9,52): Batere ados ez
Konfiantza tartea (% 95)	[2,632 - 3,654]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	1,195	
Errore estandarra	0,261	
Ikasleak (iritzi inkesta)		Ondorio nagusiak
Batezb.	4,333	% 80,95ek hau aukeratu zuten: Gutziz ados Nahiko ados Inork ez zuen "Batere ados ez" aukeratu.
Konfiantza tartea (% 95)	[3,943 - 4,724]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	0,913	
Errore estandarra	0,199	

9. itema.- Inkestatuek erantzunak justifikatzeko emandako arrazoiak:

- ✓ Kalitate batzordeek azaleko txostenak egiten dituzte, irakasleen artean bereizketarik egin gabe; txostena idaztean gehiago inplikatzeko prozedura bat pentsatu behar da (7)
- ✓ Ikasleen iritzia oso garrantzitsua da, baina oraingo inkestak jasotzen duena baino modu malguagoan jaso beharko litzateke (2)

10. itema.- Aplikazio informatikoak ebaluazio lana erraztu du:



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezb.	3,810	% 61,90ek hau aukeratu zuten: Gutziz ados Erdizka ados Gutzien aukeratutako erantzuna (% 4,76): Batere ados ez
Konfiantza tartea (% 95)	[3,292 - 4,327]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	1,209	
Errore estandarra	0,264	


11. itema.- Inkestatuak adierazitako mugak:

- ✓ Informazio garrantzitsua sakabanatuta dago aplikazioaren ingurunean, eta ez dago eskuragarri (4)

12. itema.- Inkestatuak adierazitako hobekuntza posibleak:

- ✓ Zaila da bi inguruetan lan egitea: moodletic (excel orria) eta DOCENTIAZ plataforma; bi sistemak bateratu beharko lirateke (2)
- ✓ DOCENTIAZ aplikazioak puntuak zuzenean adierazleei ematea proposatzen da (2)

13. itema.- Protokoloa funtsezko tresna da ebaluazioa egiterakoan:




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batez b.	4,450	% 90ek hau aukeratu zuten: Guztiz ados Nahiko ados 2 erantzun aukeratu gabe gelditu ziren.
Konfiantza tartea (% 95)	[4,149 - 4,751]	
Laginaren tamaina	20	
Desbiderapen tipikoa	0,686	
Errore estandarra	0,153	

14. itema.- Inkestatuek erantzunak justifikatzeko emandako arrazoiak:

- ✓ Ebaluazio protokoloa nahitaezkoa da ebaluazioari beharrezko objektibotasuna emateko (5)
- ✓ Hobetu egin beharko litzateke, zuzendutako lanei kredituak esleitzeko irizpideak gehituz eta argitalpenen balorazioa egokituz (2)

15. itema.- Estilo liburua erabilgarria da amaierako txosteneko atal irekia osatzeko:




Azterketa teknikoak		Ondorio nagusiak
Batez b.	4,381	% 80,95ek hau aukeratu zuten: Gutziz ados Erdizka ados Inork ez zuen "Batere ados ez" aukeratu.
Konfiantza tartea (% 95)	[3,923 - 4,839]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	1,071	
Errore estandarra	0,234	

16. itema.- Inkestatuek erantzunak justifikatzeko emandako arrazoiak:

- ✓ Estilo liburuak asko errazten du ebaluatzaileen lana, erabili eta/edo aldatu daitezkeen esaldi ereduak ematen dituelako. Beharrezkoa da. (11)

17. itema.- Binakako ebaluazioak lana errazten du:




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batez b.	4,810	% 95,24k hau aukeratu zuten: Gutziz ados Nahiko ados 2 erantzun aukeratu gabe gelditu ziren.
Konfiantza tartea (% 95)	[4,591 - 5,028]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	0,512	
Errore estandarra	0,112	

18. itema.- Inkestatuek erantzunak justifikatzeko emandako arrazoiak:

- ✓ Binakako ebaluazioa funtsezkoa da, berme neurri oso egokia da (12)

19. itema.- Moodletic ebaluatzeko tresna dinamikoa da:




Azterketa teknika		Ondorio nagusiak
Batezb.	3,857	% 66,67k hau aukeratu zuten: Nahiko ados Gutziz ados Gutxien aukeratutako erantzuna (% 4,76): Batere ados ez
Konfiantza tartea (% 95)	[3,383 - 4,331]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	1,108	
Errore estandarra	0,242	

20. itema.- Irakasleen partaidetza bultzatzeko gauzatu diren ekintzak:

- ✓ **DOCENTIAZ** programaren ezaugarriari buruzko informazio saioak ikastegietan. Aurkezpen hauetan titulazioak akreditatzeko funtsezko tresna dela jakinarazi behar da (5)

21. itema.- Amaierako txostenaren emaitzak informazio nahikoa eskaintzen die irakasleei beren irakaskuntza jarduera hobetzeko:




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezb.	3,810	% 61,90ek hau aukeratu zuten: Nahiko ados Erdizka ados Inork ez zuen "Batere ados ez" aukeratu.
Konfiantza tartea (% 95)	[3,390 - 4,229]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	0,981	
Errore estandarra	0,214	

22. itema.- Erantzunak justifikatzeko inkestatuek emandako arrazoiak:


- ✓ Txostenean emandako informazioa orokorregia da eta ez du gehiegi balio hobetzeko -5-
- ✓ Irakasle bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak adierazteaz gain, hobetzeko ekintza plan bat eskaini behar litzaieke -2-

23. itema.- DOCENTIAZ programak irakasleak beren irakaskuntzaren kalitatearen arabera bereizteko balio du:



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batez b.	3,810	% 66,67k hau aukeratu zuten: Nahiko ados Erdizka ados Inork ez zuen "Batere ados ez" aukeratu.
Konfiantza tartea (% 95)	[3,412 - 4,207]	
Laginaren tamaina	21	
Desbiderapen tipikoa	0,928	
Errore estandarra	0,203	

24. itema.- DOCENTIAZ programaren emaitzak egun UPV/EHUK dituen prestakuntza programei lotuta egon behar du:




Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezb.	4,300	% 80k hau aukeratu zuten: Guztiz ados Nahiko ados 2 erantzun aukeratu gabe gelditu ziren.
Konfiantza tartea (% 95)	[3,949 - 4,651]	
Laginaren tamaina	20	
Desbiderapen tipikoa	0,801	
Errore estandarra	0,179	

25. itema.- Erantzunak justifikatzeko inkestatuek emandako arrazoiak:

- ✓ DOCENTIAZ programak irakaskuntza hobetzeko prestakuntza programak diseinatzeko beharrak antzematea ahalbidetzen du -4-
- ✓ Puntuazio posibleen artean gehiago zehaztu behar da, DOCENTIAZ programak irakasleak beren irakaskuntza kalitatearen arabera bereizteko ematen duen ahalmena hobetzeko (2)


26. itema.- Irakaskuntza jarduera ebaluatzeko trebakuntza jaso behar da ebaluatzaile lana egin ahal izateko:



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batez b.	4,579	% 94,74k hau aukeratu zuten: Guztiz ados Nahiko ados 2 erantzun aukeratu gabe gelditu ziren.
Konfiantza tartea (% 95)	[4,306 - 4,852]	
Laginaren tamaina	19	
Desbiderapen tipikoa	0,607	
Errore estandarra	0,139	



27. itema.- UPV/EHUko irakasleek IEUBren lana errespetatzen dute:



Azterketa teknikoa		Ondorio nagusiak
Batezb.	3,500	% 66,67k hau aukeratu zuten: Nahiko ados Erdizka ados Gutzien aukeratutako erantzuna (% 5,56): Batere ados ez
Konfiantza tartea (% 95)	[2,993 - 4,007]	
Laginaren tamaina	18	
Desbiderapen tipikoa	1,098	
Errore estandarra	0,259	

28. itema.- Adierazi, ordutan, espediente bakoitza ebaluatzen emandako denbora:

Bi eta hiru ordu artean (12)
Lau ordu (4)

29. itema.- DOCENTIAZ programa hobetzearren, ondorengo inguruko hausnarketa egin beharko litzakete:

- ✓ Irakasleen inplikazioei eta aintzatespen ekonomikoei eta irakaskuntzakoei (JAPeko kredituen deskargua) buruz hausnartzeko beharra (3)
- ✓ Ikastegietako Kalitate Batzordeek egindako azaleko lanari buruz hausnartzeko beharra (2)
- ✓ DOCENTIAZen irakasle batzuei emandako puntuazio altuak ez datoz bat ikasleen iritziekin (2)
- ✓ Ikasleen gida eta 1.2 puntuan emandako materiala erlazionatu (2)

4. INFORMAZIOAREN AZTERKETA

IEUBko kide gehienak (% 87,71) nahiko ados daude DOCENTIAZ programako adierazleekin; beren ustez, aldatzeko moduko alderdiak hirugarren dimentsioa (irakaskuntzaren garapen profesionalarekin lotutakoa) eta plangintzari emandako gehienezko pisua (40/100) dira. Era berean, 0. dimentsioari buruzko hainbat proposamen aurkeztu dira.

Ikasleen gidari dagokionez, UPV/EHUK irakasleek bete beharreko gutxieneko alderdi batzuen eredu bat proposatzeko beharra ikusi da. Programako dimentsio bakoitzaren pisuei dagokionez, inkestaturen % 85,71 nahiko ados daude horiekin.

Programan erabilitako hiru informazio iturriei dagokienez, % 85,71 nahiko edo guztiz ados daude irakasleak, autotxostenaren bidez, iturri egoki bat direlako adierazpenarekin. % 80,95ek uste dute ikasleak informazio iturri egokia direla. Aldiz, IEUBko kideen % 28 ez daude batere edo ia batere ados ikastegietako Kalitate Batzordeak informazio iturri egoki bat direlako baieztapenarekin. Aipatzekoa da ikastegietako Kalitate Batzordeek betetzen dituzten txostenak hutsalak direla dioten adierazpenen kopuru altua; hori dela eta, beharrezkoa da ikastegiak beren irakasleen lanari buruzko informazioa ematean gehiago inplikatzeko prozedura bat ezartzea.

Ebaluazio lana egiteko tresnei dagokienez, gehienak pozik daude laugarren deialdi honetan IEUBko kideen eskura jarritako baliabideekin, besteak beste, aplikazio informatikoa, ebaluazio protokoloa eta estilo liburuak. Lehenengoari dagokionez, kideen % 61,90 oso edo guztiz ados daude aplikazio informatikoaren funtzionamenduari. Alabaina, bi plataformarekin lan egitea zaila dela adierazi dute (moodle eta DOCENTIAZ). Ebaluazio protokoloari eta estilo liburuari buruz galdetzean, balorazio positiboa egiten duten kideen portzentajea % 90ekoa da.

% 95,24k uste dute binakako ebaluazioak bidegabekeria kentzen diola ebaluazioari eta segurtasuna ematen duela ebaluazio iritziak emateko orduan.

Bestalde, DOCENTIAZek irakasleak beren kalitatearen arabera bereizteko duen ahalmenari dagokionez, % 66,67 nahiko edo erdizka ados daude. Iritzi horrekin bat etorritik, % 61,90ek uste dute azken txostenak beren irakaskuntza lana hobetzeko behar adinako informazioa ematen diela irakasleei, baldin eta emaitzak UPV/EHUko prestakuntza ekintzekin lotzen badira.

Azkenik, % 94,74 guztiz edo nahiko ados daude ebaluazio lana gauzatzeko prestakuntza jasotzeko beharrezkin.

1. eranskina. - IRAKASLANA EBALUATZEKO UNIBERTSITATE BATZORDEARI ZUZENDUTAKO GALDERA-SORTA EREDUA

ARGIBIDEAK

- Erantzun ezazu hautatutako laukian "X" bat jarrita
- Zure balorazioa eskala honen arabera adieraz ezazu:
 - 1=Ez nago batere ados galderak dioenarekin
 - 2=Ez nago oso ados galderak dioenarekin
 - 3=Erdizka nago ados galderak dioenarekin
 - 4=Nahiko ados nago galderak dioenarekin
 - 5=Gutziz ados nago galderak dioenarekin

Hautatu jakintza arloa _____

1) DOCENTIAZ programan erabilitako adierazleak egokiak dira irakaskuntza jarduera ebaluatzeko:

- Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Gutziz ados

Mesedez, arrazoitu zure erantzuna:

2) Adierazi zure ustez zer adierazle ez diren ezinbestekoak DOCENTIAZ programan:

Mesedez, arrazoitu zure erantzuna:

3) DOCENTIAZ programak gutxieneko batzuk izan behar ditu ebaluazio prozesuari ekiteko:

3.1. Irakasleek ikasleen iritziari buruzko bost txosten izan behar dituzte gutxienez.

- Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Gutziz ados

3.2. Ikasleen gidak ebaluazio protokolo oinarrizko informazioa izan behar du.

- Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Gutziz ados

Adierazi gutxieneko beste batzuk:

4) DOCENTIAZ programako dimentsio bakoitzaren pisuak ondo



banatuta daude:

- Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Guztiz ados

Mesedez, arrazoitu zure erantzuna:

5) Irakaskuntza jarduerari buruz informatzeko ezarritako iritzi iturri hauek gokiak dira:

	1. Batere ados ez	2. Ez oso ados	3. Erdizka ados	4. Nahiko ados	5. Guztiz ados
Irakasleak	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Ikastegiko Kalitate Batzordea	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Ikasleak (iritzi inkestaren bidez)	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

Mesedez, arrazoitu zure erantzuna:

6) Hirugarren deialdian egindako aldaketek ebaluazioa lana gehiago doitzen lagundu dute (adibidez, ikaskuntzaren ebidentzia izatea):

- Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Guztiz ados

7) Aplikazio informatikoak ebaluazioa lana erraztu du:

- Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Guztiz ados

Mugak:

Hobekuntza posibleak:

8) Protokoloa funtsezko tresna da ebaluazioa egiterakoan:

- Batere Ez oso Erdizka ados Nahiko Guztiz ados



ados ez ados ados

Mesedez, arrazoitu zure erantzuna:

9) Estilo liburua erabilgarria da amaierako txosteneko atal irekia osatzeko:

Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Guztiz ados

Mesedez, arrazoitu zure erantzuna:

10) Binakako ebaluazioak lana errazten du:

Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Guztiz ados

Mesedez, arrazoitu zure erantzuna:

11) Moodletic ebaluatzeko tresna dinamikoa da:

Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Guztiz ados

Mesedez, arrazoitu zure erantzuna:

12) Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren Arloko Errektoreordetzak gehiago hedatu behar du DOCENTIAZ programa:

Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Guztiz ados

Adierazi zer ekintza gauzatu diren irakasleen partaidetza bultzatzeko:

13) Amaierako txostenaren emaitzak informazio nahikoa eskaintzen die irakasleei beren irakaskuntza jarduera hobetzeko:



Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Guztiz ados

Mesedez, arrazoitu zure erantzuna:

14) DOCENTIAZ programak irakasleak irakaskuntzaren kalitatean oinarrituta bereizten ditu:

Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Guztiz ados

15) DOCENTIAZ programaren emaitzak egun UPV/EHUK dituen prestakuntza programei lotuta egon behar du:

Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Guztiz ados

Mesedez, arrazoitu zure erantzuna:

16) Irakaskuntza jarduera ebaluatzeko trebakuntza jaso behar da ebaluatzaile lana egin ahal izateko:

Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Guztiz ados

17) UPV/EHUKo irakasleek IEUBren lana errespetatzen dute:

Batere ados ez Ez oso ados Erdizka ados Nahiko ados Guztiz ados

18) Adierazi, ordutan, espediente bakoitza ebaluatzen emandako denbora:_____

19) DOCENTIAZ programa hobetze aldera, ondorengo inguruko hausnarketa egin beharko litzakete:

Mila esker laguntzeagatik

enán ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

GRADU IKASKETEN ETA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO DE ESTUDIOS DE GRADO E INNOVACIÓN

IRAKASLANA EBALUATZEKO ZERBITZUA / SERVICIO DE EVALUACIÓN DOCENTE



2. eranskina.- IRAKASLANA EBALUATZEKO UNIBERTSITATE BATZORDEAK PRESTATUTAKO IRAKASLEAREN AMAIERAKO TXOSTENA

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jarduera ebaluatzeko DOCENTIAZ programaren fase esperimentaleko 4. deialdia

Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak prestatutako Irakaslearen Amaierako Txostena

Irakaslea: _____

Saila: _____

Atxikitako ikastegia: _____

Ebaluatu beharreko denboraldia: _____

Txosten hau egiten parte hartu duten kideak:

Presidentea

Kideak

Idazkaria

Irakaslearen Amaierako Txostena betetzeko gida

Iturrietatik jasotako informazioa aztertu ondoren, UPV/EHUko Irakaslana Ebaluatzeko Unibertsitate Batzordeak dagozkion balorazioak egingo ditu.

Azterketa bat egitea gomendatzen da, ereduko dimentsio eta adierazleei eta argitaratutako ebaluazio irizpideei jarraituz. Hala ere, garrantzitsua da osotasunezko ikuspegi bat izatea eta ereduaren atal ezberdinen arteko koherentzia konprobatzea.

Txosten honetan garrantzi berezia hartzen du irakaslearen irakaskuntza jardueraren inguruan egiten den balorazio kualitatiboak.

Balorazio kuantitatiboa egiteko, Batzordeak 0tik 5era bitarteko eskalako puntuazio bat emango du ataletako bakoitzean. Gogoan izan behar da 0k irizpideekin inola ere bat ez datorrela adierazten duela, 3k irizpideekin nahiko bat datorrela eta 5ek, berriz, irizpideekin guztiz bat datorrela.

Aplikazio informatikoak puntuazio hori eraldatuko du, ereduko adierazleen pisuen arabera. Hala, txostenaren amaieran guztira lortutako puntuazioa agertuko da, gehienez 100 puntukoa. 0. dimentsioaren ondoriozko faktore zuzentzailea aplikatu ostean, puntuazioa 120 puntura ere irits daiteke.



0. DIMENTSIOA.- IRAKASKUNTZA ZAMA

Irakaskuntza jardueraren zailtasun maila baloratzen da, hainbat faktoreen arabera

Irakaskuntza zamaren laburpena			
Ikasturtea	Irakaskuntza zama (kredituak)	Kargu/lizentziengatiko murrizketa (orduak)	Irakasteko gaitasuna (kredituak)
2006/07	datua	datua	datua
2007/08	datua	datua	datua
2008/09	datua	datua	datua
2009/10	datua	datua	datua
2010/11	datua	datua	datua

f1, f2 eta f3 faktoreak				
Irakaskuntza zama, f1 (talde bakoitzeko ikasle kopurua), f2 (beste ikastegi batzuetan emandako irakaskuntza) eta f3 (euskaraz emandako irakaskuntza) faktoreen arabera egokitua				
2006/07 ikasturtea	2007/08 ikasturtea	2008/09 ikasturtea	2009/10 ikasturtea	2010/11 ikasturtea
datua1	datua2	datua3	datua4	datua5
BBIZEf₁₋₃ = Batez besteko irakaskuntza zama, f1, f2 eta f3 faktoreen arabera egokitua.				
$BBIZEf_{1-3} = \frac{datua1 + datua2 + datua3 + datua4 + datua5}{Ebaluatubeharrekoaldikoikasturteko} = datua6$				

f4 eta f5 faktoreak
BBIZEf₁₋₅ = Batez besteko irakaskuntza zama, f1, f2, f3, f4 (irakasgai kopurua) eta f5 (irakasle berri ez iraunkorrak) faktoreen arabera egokitua
$BBIZEf_{1-5} = BBIZEf_{1-3} \times f4 \times f5 = datua6 \times datua4 \times datua5 = datua7$

Ondoriozko adierazlea
AIZ = Amaierako irakaskuntza zama



$$AIZ = BBIZEf_{1-5} + BBIZTI + EBBIZ + BBMK = \text{datua}8$$

BBIZEf₁₋₅ = Batez besteko irakaskuntza zama, f1, f2, f3, f4 eta f5 faktoreen arabera egokitua.

BBIZTI = Batez besteko irakaskuntza zama tutoretzapeko irakasgaietan

EBBIZ = Eskuliburuko batez besteko irakaskuntza zama

BBMK = Batez besteko murrizketa kredituak

IGB = Irakasteko gaitasunaren batezbestekoa

$$IGB = \text{datua}9$$

AIZen ehunekoa, IGBren gainean

$$\frac{\text{datua}8}{\text{datua}9} \times 100 = \text{datua}10$$

OA = Ondoriozko adierazlea

$$OA = \text{datua}11$$

ehunekoa 110ekoa edo txikiagoa baldin bada

Adierazlea = 1

ehunekoa 110-120 artekoa edo 120koa baldin bada

Adierazlea = 1,1

ehunekoa 120koa baino handiagoa baldin bada

Adierazlea = 1,2

1. DIMENTSIOA.- IRAKASTEKO ETA IKASTEKO PROZESUAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA

Irakaskuntza plangintzaren kalitatea baloratzen da, baita irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena tituluan ezarritako jarraibideekin eta IKD ereduarekin bat datorren edo ez ere.

IRAKASTEKO ETA IKASTEKO PROZESUAREN PLANGINTZA ETA GARAPENA (Gehienez 40 puntu)			
Azpidimentsioak	Pisua	IEUBren balorazioa (0tik 5erako eskala)	Puntuazioa pisuaren arabera
1.1.- Gaien plangintza	20		
1.2.- Irakasteko eta ikasteko prozesuaren garapena	20		
1. dimentsioa guztira			

2. DIMENTSIOA.- EMAITZAK

Emaitzak prestakuntza helburuak kontuan hartuta baloratzen dira

EMAITZAK (Gehienez 30 puntu)			
Azpidimentsioak	Pisua	IEUBren balorazioa (0tik 5erako eskala)	Puntuazioa pisuaren arabera
2.1.- Ikasleek lortutako arrakasta tasak	10		
2.2.- Ikasleek duten iritziari buruzko inkestan jasotako emaitzak	10		
2.3.- Zuzendutako edo gainbegiratutako lanak	10		
2. dimentsioa guztira			

3. DIMENTSIOA.- IRAKASKUNTZAREN GARAPEN PROFESIONALA

Irakaskuntzaren garapen profesionala baloratzen da, UPV/EHUn bikaintasuneko irakaskuntza lortzeko asmoz.

IRAKASKUNTZAREN GARAPEN PROFESIONALA (Gehienez 30 puntu)				
Azpidimentsioak	Pisua	Puntuen batura	IEUBren balorazioa (0tik 5erako eskala)	Puntuazioa pisuaren arabera
3.1.- Irakaskuntzaren kalitate instituzionaleko prozesuetan parte hartzea	6			
3.2.- Koordinazio instituzionala	6			
3.3.- Prestakuntza				
3.3.1.- Jasotako prestakuntza	6			
3.3.2.- Emandako prestakuntza	6			
3.4.- Irakaskuntzarekin lotutako berrikuntza eta argitalpenak				
3.4.1.- Hezkuntza Berrikuntzako Proiektuak	6			
3.4.2.- Irakaskuntzarekin lotutako argitalpenak	6			
3.5.- Hedapena	6			
	3. dimentsioa guztira			



IRAKASLEAREN BALORAZIO OROKORRA

Deskribatu azaletik irakaslearen balorazio orokorra eta aipatu, bereziki, nabarmendu beharrekoak diren jardunbideak:




Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

GRADU IKASKETEN ETA BERRIKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA
VICERRECTORADO ESTUDIOS DE GRADO E INNOVACIÓN

IRAKASLANA EBALUATZEKO ZERBITZUA / SERVICIO DE EVALUACIÓN DOCENTE

PUNTUAZIOA GUZTIRA

Dimentsioak	Puntuazioa
1. dimentsioa.- Irakasteko eta ikasteko prozesuaren plangintza eta garapena	
2. dimentsioa.- Emaitzak	
3. dimentsioa.- Irakaskuntzaren garapen profesionala	
Guztira	
	
0. dimentsioa.- Ondoriozko adierazlea	
Amaierako puntuazioa	
Amaierako emaitza	

AMAIERAKO EMAITZA:

- TXARRA (40 puntu baino gutxiago)
- ONARGARRIA (40 eta 60 puntu artean)
- OSO ONA (61 eta 90 puntu artean)
- BIKAINA (90 puntu baino gehiago)